

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian, 1991ko ekainaren 28an egin dute euskaltzain osoek hileroko euren batzarrea. Goizeko hamarretan bildu dira: J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; J.L. Lizundia idazkariorde urgazlea.

X. Diharce eta E. Larrek ezin etorria adierazi dute Maiatzeko batzar-agiria onartu da.

### **Euskara Batuko batzardea**

Maiatzeko batzarrean eztabaidatzen hasitako *eritzi/iritzi* formak bateratzeko proposamenarekin jarraitu aurretik, X. Kintanak bidalitako guntun bat ikusi da. Euskaltzain urgazleek aurrez gaien berri jakin gabe erabakiak hartzeko modu hau salatzen du, bere kezka eta kexua azalduz. Urgazleek berez boturik ez badute ere, Arautegiak erabakiei buruz mintzatzeko eskubidea ematen die. Eskuarteko gaietan interesatuak nor diren jakitea da arazoa eta urgazle guztiei gutun bana igortzea erabaki da, nahi dutenei aurkeztuak bidaliko zaizkiela aditzera emanez. Jasotako erantzunen arabera zabalduko dira proposamenak. Buruak osoen batzar- rera dei ditzake hala beharrez.

J.M. Satrustegik egindako idazkia aipatu da gero. Euskarak une honetan nozitzen duen trakeskeria eta joera desegokien uholde beldurgarria ikusita *eritzi/iritzi* eta antzeko gauzatxoek eztabaidan sartu behar ote lukeen Euskaltzaindiak, dio funtsean izkribuak. Behar gorrien ildotik ez baino, maiztasunaren izenean beste nonbaitetik desbideratzen dela eztabaida ikusirik, erretiratu egin du idazkariak bere galdera.

Eguneko gaietan sartuz, *iritzi* hitzaren forma onartzea proposatzen du Euskara Batuko batzardeak, *eritzi* hitza baztertuz. Aditza ere sartzen den erabakian galdetu delarik, ezetz esan da, partizipioa bakarrik sartuz izen bezala. Bozketa egin da gero, batzordearen proposamenari bai ala ez erantzutekotan. A. Irigoien eta F. Krutwig jaunek euron adostasun-eza azaltzeko, ez dute parterik hartu

bozketan. Hamabost dira, horrela, bozkatu duten beste euskaltzainak, eta ondorea hau izan da: 13 *bai*, ez bat, eta *zuri* bat.

*Arabera/arauera* forma bien artean euskara baturako gomendatu behar dena *arabera* dela onartzea, proposatu du batzordeak. Bozketan ez dute berriro ere parterik hartu A. Irigoien eta F. Krutwig jaunek, eta beste hamabost euskaltzainek aho batez onartu dute proposamena.

Aurreko batzarrean onartutako testuari egindako zuzenketak eta estilo orrazketak azaldu ditu P. Salaburuk. Zabalkundearen kezka aipatu da berriro. Argitaratuak diren erabakiekin batera elkartzuz liburuska batean plazaratuko dira oraingo eta gaien zerrenda ekartzekotan gelditu da batzordea. *Euskera* agerkariaren atal eta separata bezala banatuko da.

Euskara Batuko batzordearen izenean gogorki gaitzetsi du P. Salaburuk euskaltzain osoen batzarrean esandakoak egunkarietan argitaratzea.

A. Irigoienek erantzun dio, gauza zientifikoak direla eta bertan usteltzen ez uzteko haiztzea komeni dela.

Gai zientifikoak badira, zergatik batzarreetan azterketa hasi aurretik ez diren aipatzen, esan da; eta batez ere, pertsonen izenak ematea ezin dela inola ere onartu.

Hemengo gauzak hemen behar direla utzi, esan du euskaltzainburuak.

*Bilbao* aldizkarian argitaratutako F. Krutwigen agerpenak ere ez direla egundaino ezeztatu, ez zuzendu, dio E. Knörrek.

Aldizkari berorren geldotasunagatik izan dela, erantzun dio F. Krutwig jaunak, zuzentzeko asmoa ziurtatuz.

## **Euskaltzaindiaren ikurra**

Bulegoetako inpreseria berriztatu behar dela-ta Euskaltzaindiaren ikurra egokitzea proposatu du J.A. Arana Martijak. Logotipoko zuhaitzak hasieratik izan dituen aldaketen bilduma aurkeztu du, orain proposatutako bi irudi berrirekin. Eztabaidan bi iritzi agertu dira: dagoen moduan zuhaitza solterik uztea, edota hasierako ikurrera itzultzea inguruko erronda eta guzti. Euskaltzainen domina era horrelakoa da. 1921ekoa hartu da eredutzat. Bozketan, 8 txartel izan dira hasiera-koaren alde, 5 oraingoa nahiago dutenenak, eta 4 zuri.

## **Kanpo-izendapenak**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailetik hartutako gutun baten bidez, euskarazko literatur lanak sortarazi eta beste hizkuntza batzutura itzultzeko bekak emango dituen epaimahai balioemailerako ordezkaria izendatzeko eskaria dago. E. Knörr izendatu da, eta ezinean J.M. Lekuonak ordezkaturiko du.

1992an Luxemburgen egin nahi den Europear Idazleen Kongresurako gomi-ta jaso da. B. Oihartzabal joango da Euskaltzaindiaren izenean.

Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsital Eskolan 3. kurtsuko ikasleei bizkaieraz-ko gaitasun-frogak egiteko ordezkari bat eskatzen dute. Gotzon Aurrekoetxea joango da.

1991ko azaroan egitekoa den "Elebiko irakaskuntzako ereduak" izeneko Mintegirako deia jaso da Barcelonako Unibertsitatetik, eta Euskaltzaindiaren izenean M. Zalbide bidaltzea onartu da.

### **Eskuartekoak**

Egoitza berriko bibliotekan apalategi tinko eta mugikorren ezartzeko eta argigailuen horniketarako proposamenak jasotzeko epea amaitu dela, esan du J.A. Arana Martijak. Dagokion batzordea bildurik, etxerik ganorazkoenei eta aurrekontutan iragarritakoa baino merkeago hartu zaizkie. Uztailean egin behar dira lan biak. Denbora berean aldatuko dira etxez liburuak. Mahai, aulki eta beste altzarien konkurtsu iragarpena orain egingo da eta uztailaren azken aldera amaituko da eskaintzak egiteko epea, irailaren erdi alderako amaitzeko moduan. Bidiera bi bakarrik ezarriko dira azkenean.

Gortina eta antzeko apaingarriak konkurtsurik gabe hitzartuko dira.

Iruñeko Udal Ikastolan ez dituzte hartu eskaria egina zuten haur guztiak eta gurasoak kalera atera dira tokia eskatzen. Bestalde, Maribel Beriain zinegotziak bideratuak ziren haur euskaldunen oporraldiak baztertu ditu kargua hartu bezain laster. Jagon Sailak gutun bat idatziko dio.

Ermuko Udalean egindako euskal itzulpen txarren salaketa egin zaio Euskaltzaindiari. Hori ez da euskara, noski. Udalak ez zuen bere aldetik izendapena egitean epaimahairako Euskaltzaindiaren ordezkariarik eskatu.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

### **BATZAR OROKORRA**

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan 1991.eko ekainaren 28an, arratsaldeko 4etan bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M.<sup>a</sup> Lekuona buruordea, J.M.<sup>a</sup> Satrustegi idazkaria, J.A. Arana diruzaina, P. Charritton, J.L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, B. Oyhartzabal, F. Ondarra, J. San Martin eta L. Villasante euskaltzain osoak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa, J.A. Arkotxa, R. Badiola, F. Esnal, J.M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J.L. Lizundia eta J.J. Zearreta euskaltzain urgazleak.

Goizeko bilkuraren berri ematen du J.M. Satrustegi idazkariak, gai azpimarragarriak hauek direlarik: Euskara Batuko batzordearen proposamen bi onartu dira: *eritzi/iritziren artean iritzi* hobestea, *arauera/arabera* formen artean *arabera*.

Euskara Batuko batzordearen proposamen en berri jakitea nahiko lukeen edozein urgazleri gonbidatzen zaio; Euskaltzaindiaren egoitza berrira joatea dela-ta Erakundearen ikur, logotipo eta inpreseria berriztatzea, sorrerako eredu hartuz; zenbait izendapen egin dira: Bizkaiko Unibertsital Irakaslegoaren Eskolarako eta Eusko Jaurilaritzako literatur lanen sorketa beketarako, epaimahaikideak; Luxemburgen izango den Europako Idazleen eta elebidun irakaskuntzari buruzko Barcelonako biltzarretarako ordezkariak.

Onomastika batzordearen bezperako bilkuraren azalpena egin du J.L. Lizundia batzorde-idazkariak, bertan lehen Onomastika Jardunaldien liburua aurkeztuz gain, gai nagusi hauek tratatu zirelarik: ponte-izen eta historikoen azterketarako lan talde bat sortzea, munduko leku-izen eta exonimoen azterketarako beste bat, deituei buruzko langintza eta bekez, Nafarroako toponimia-bilketen dudak eztabaidatzea, Hernaniko udalbarrutiko toponimia bilketari gainbegirada eta beste zenbait gai labur.

*Fr. Migelek darabiltzan zenbait hitzez.* Hamazortzigarren mendearen hondarretan idatziriko sermoi batzuen bilketatik atera ditu oharrok F. Ondarra euskaltzainak. Sermoiok Fr. Migel karmeldarrarenak direla adierazi du Ondarra jaunak. Sermoiotako testu-iruzkina egin du txostengileak zenbait hitz (*antzina, atzerabide, eguipidia,...*) eta aditzei buruz (*erantsi, irauntsi, eretxi...*) xehetasunak eskainirik. Berauetaz hainbat adibide eman ditu. Azkenik, zenbait euskaltzain eta urgazlek itaun batzuk eaginez eztabaida aberasgarria eman dute.

*La notion d'âge dans le terme "ami" en basque et en tcherkesse* eta *A propos de'un ancien nom du vaurien en japonais* izeneko Michel Morvan jaunaren txosten labur bi irakurtzen ditu J. Haritschelhar euskaltzainburuak. Lehendabizikoan egileak euskarari *adin* eta *adiskide* hitzek eta Iparmendebal Kaukasiako txerkese-razko nozio berdinekoak erro eta atzizki antzerakoak dituztela dio, gisa bereko eratorpenez. Bigarreanean, japoniera zaharreko ezezkotasuna, euskararekikoarekin parekide dela aipatzen du.

Azkenik euskaltzain ohorezko berriei diploma banatzea edo aipamena egiten da. Yu. VI. Zytsar' Georgian bizi baita bertara igorri zaiola aditzera ematen da; Rudolf de Rijk jaunak telegrama bat bidaliz bere ezin etorria adierazten du Kaliforniatik, esker onezko gutun bat ere igorri zuelarik holandar euskalari honek; J.M. Jimeno Juriari, J.M. Satrustegi idazkariak eraman dio euskaltzain ohorezko diploma, Iruñeko ospitalean bait dago; laugarren euskaltzain ohorezkoari, Jon Etxaide jaunari, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak ematen dio diploma, berak euskararen alde egin dituen ahalegin, idatzi eta ikerketak azpimarratuz eta bilduen txalo beroak jasoz.

Horrela, amaitutzat ematen da bilkura.

*Jean Haritschelhar*  
euskaltzainburua

*J.M. Satrustegi*  
idazkaria